

Etxeberriko Lagun-Artea elkarteak 25garren urteurrena ospatuko du aurten

■ 1978ko urriaren 28an inauguratu zen eta urte hauetan 200 bat bazkide izan ditu ■ Gaur egun soziedade bezala erabiltzen bada ere, urte hauetan zuzendaritzakoak saiatu dira beste hainbat aktibitate aurrera ateratzen ■ Azaroaren 18an, urteurrena ospatzeko afaria egingo da.

ETXEBERRIKO Lagun-Artea martxan jarri zela 25 urte betetzen dira aurten. Sortu zenetik auzoko zentro soziala izatea zen helburua: haur, gazte, heldu, zahar, gizon eta emakumeentzako biltzeko lekua izatea. Gaur egun 204 bazkide ditu eta batez ere soziedade bezala erabiltzen da, lagun artean bildu, jan, edan eta hitz egiteko.

Kooperatibaren inguruan

Etxeberriko Lagun-Artea 1978garren urtean sortu zen, Etxeberriko etxebizitza kooperatibaren inguruan. Vista Alegreko terrenoetan, Etxeberri baserria zegoen lekuan, babes ofizialeko 320 etxebizitza eraiki zituzten. Auzo oso bat eraiki zen eta bertan bizitzen familia gazte asko jarri zen, horregatik auzoko bizilagunak biltzeko zentro sozial bat eraikitzeko premia zegoela pentsatu zuten. Etxeberriko 8garren blokeko bajua txukundu zuten eta haur, gazte eta helduentzako gune erakargarri bat egiten saiatu ziren.

Dioni Telleriak, hasieratik bazkide izan den bizilagunak, garai haiek gogoratuz dio "guk kooperatiba bezala, elkarte hau sortu aurretik ere, bilerak egiten genituen 2garren blokean. Bilerak maiz egiten genituen, sortzen ziren arazoak konpontzeko. Jendea ohituta zegoen gauzak horrela egitera".

Soziedade baino gehiago

Orain, soziedade bezala erabiltzen bada ere, 25 urte hauetan saiatu dira auzoko jende guztiak parte hartzeko moduko gunea sortzen. Demokraziako aurreneko herriko hauteskundeetarako adi-

bidez, partidu politiko guzti-
etako ordezkariekin debata
antolatu zuten elkarteak.


Liburutegi bat osatu zuten handik eta hemendik liburuak lortuta: bazkideek, auzo-lagunek eta argitaletxeren batek ere lagundu zuen lan honetan. Horrela 500 bat liburu, eta hainbat komiki eta ipui bildu zituzten eta elkartearen barruko gela batean jarri zuten liburutegia. Ez zuen arrakastarik izan eta 15 urte dira liburutegia itxita dagoela. Haur eta gaztetxoentzako jolas gela bat ere antolatu zuten: mahai jokoak eta ping-pong mahaia jarri zituzten baina hau ere ez zen aurrera atera.

Auzoko jaiak antolatzeko jai batzorde bat osatu zen, bertan parte hartzen zuten elkarteak zuzendaritzako hainbat lagunek eta urte askoan egin izan dira arrakasta haundiarekin. Azkeneko bi urteetan bertan behera geratu dira, orde. Elkarteko hainbat bazkideren ustez guzti honen arrazoiak: giro falta, zuzendaritza batzuen interes falta eta partaidetza eskasa dira.

Baina egun bizirik dirauten aktibitateak ere antolatu ditu Etxeberriko Lagun-Arteak. Hor dago palanka tiraketa, 1959garren urtetik praktikatzan ez zen kirola berreskuratu dute. Edota, Atletia Osoaren frogak, San Joanetan egiten dena eta arrakasta haundiz gainera.

Elkartek antolatutako tanborrada urteetan atera da Etxeberriko festetan. Gaur egun umeen tanborrada ateratzen da bakarrik eta San Joanetan.

Erakusketak ere antolatu dituzte, eta Dantzari Festa eta Korrikarako laguntza ere eman dute.



Javier Arraztio Etxeberri Lagun-Artearen diruzaina eta Dioni Telleria elkarteak betiko bazkidea.

Emakumeak soziedadean

Etxeberriko Lagun-Artea izan zen emakumeak bazkide bezala onartu zituen lehen soziedade Hernanin. Bazkide izatea auzoko etxearen jabetzarekin lotuta zegoenez, eta emakume nahiz gizonak zirenez auzoko etxeen jabeak, emakumeek elkarteak ireki zitzaizkien. Gaur egun dauden 204 bazkideetatik, 20 dira emakumezkoak.

Urteurrenaren ospakizuna

Urtemuga ospatzeko zer egingo duten oso argi ez dute oraindik baina azaroaren 18rako afari bereziren bat egingo dute. Bazkideez gain, bertara Hernaniko beste soziedadeetako bazkideak ere joango dira. Ohitura den bezala, soziedade bakoitzaren urtemugan Hernaniko beste sozie-

dadeetako bi bazkide gonbidatzen dira afarira. Afariaz aparte, beste gauza batzuk ere

antolatzeko asmotan dabilta: sukaldaritza ikastaroa, sagardo probaketa, eta abar. □

ARMARRIA:

Etxeberri baserriaren oroimena

Mikel Ruiz bazkideak egin zuen armariaren aurreneko zirriborroa. Elkartek erabaki zuen Etxeberri baserriak armarrarian agertu behar zuela, auzo berriaren eraikuntzaren ondorioz desagertu zelako. Agertzen diren beste marrazkiak: Hernaniko armarraria eta argizaiola.

Manuel Zugazaga donostiarrak marraztu zuen gaur egun Etxeberriko Lagun-Artean aurkituko dugun armari hau, elkarteari 15.000

pezeta kostatu zitzaizkion.



Etxeberriko Lagun-Artearen lokalean dagoen armarraria

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
943 33 03 97
ZINGI - ZANGA
Eguneroko menuak.
Asteburuetan afariak.

Peña
OKINDEGLA • JANARIDENDA
Zure eguneroko
beharrei erantzuteko,
hemen gaude.
Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

GALARRETA JAI-ALAI
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00 ETATIK AURRERA
ERREMONTE JAIALDIA:
1. partidua: Uterga-Gaztelu / Odriozola-Lander
2. partidua: "Casino Kursaal" txap.: Eizagirre / Altunali
3. partidua: Ezkurra-Iriarte / Agirresarobe-Altuna I-Lizaso
4. partidua: Zeberio I-Urretabizkaia II / Sarasua-Etxeberria II

■ ERREMONTA -CASINO KURSAAL TXAPELKETA

Eizagirre irtengo da favorito gaur Galarretan, animoz altu dagoen Altuna II-aren kontra

■ Eizagirre hiru aldiz gelditu da txapeldunorde buruz buru eta dohain eta esperientzia haundia ditu ■ Altuna II zer galdurik gabe irtengo da gaur Iriarte eliminatuta.

BURUZ buruko txapelketa aurrera dioa eta hirugarren partidua jokatu da gaur Galarretan. Jon Eizagirrek Garikoitz Altunaren kontra neurtuko ditu indarrak. Eizagirrek palmares ona du buruz buru: hiru alditan gelditu da txapeldunorde 1996an, 1997an eta 1999an. Hiru aldietan Koteto Ezkurraren kontra jokatu behar izan du finala eta 35-31, 35-26 eta 35-31 galdu ditu hirurak. Dudarik gabe 37 urteko zarauztar honek aurten ere erakutsi nahiko du buruz buru goi goian ibiltzeko gai dela.

Altuna partidu bat irabazita
Garikoitz Altuna zer galdurik gabe aterako da gaur frontoira, lehenengo partiduan Iriarte erraz menpean hartu ondoren. Altunak partidu ona jokatu zuen lehenengo hura, baina, gaurko kontrarioak gauzak asko zailduko dizkio. Iriarteren kontrako partidua ere egindako deklarazioetan ere nabarmendu zuen Altunak erregalarik ez duela egin behar Eizagirreri gerra eman nahi badio, eta duen dena eman beharko duela frontoian.

Gaurko partidua irabazten duenak Lizaso izango du zai.

Lau partidu gaur

Partidua arratsaldeko 16:00-etan hasiko den jaialdiko bigarrena da. Beste partidua: 1) Uterga-Gaztelu / Odriozola-Lander.

3) Ezkurra-Iriarte / Agirresarobe-Altuna I-Lizaso.

4) Zeberio I-Urretabizkaia II / Sarasua-Etxeberria II.

Jokin Etxabe larunbatean

Jokin Etxabe Hernanin bizi den azkoitiarrak datorren larunbatean hasiko du buruz buruko txapelketa. Imanol Altuna amezketarraren kontra jokatu beharko du. □



Musika garaikideko kontzertua iaz Chillida Lekun.

Donostiako musika hamabostaldia hasi da eta 6 kontzertu izango dira Hernanin

■ Musika garaikideko sei kontzertu izango dira Chillida-Lekun, abuztuaren 18tik 23ra ■ Chillida Lekuko kontzertuak 20:00etan dira.

DONOSTIAKO Musika Hamabostaldia asteartean hasi zen eta inaugurazio kontzertuetako bat Mac Jeara's Band hernaniar taldeak eman zuen Haizearen orrazian. Donostia eta inguruan kontzertu ugari daude iragarrita abuzturako eta Hernanin ere izango dira 6 kontzertu, Chillida Lekun, abuztuaren 18tik abuztuaren 23ra. Iaz bezalaxe Musika garaikidea izango da Chillida Lekun: biolina, pianoa, baritonoa, haize instrumentuak eta abar. Kontzertu guztiak arratsaldeko 20:00etan izango dira.

Musika entzun nahi duenak aukera egunero dauka Donostian. Gaur, aitzinako musikaren barruan, La Trulla de Bozes taldea, 18:00etan Santa Teresa Konbentuan; eta organo zikloaren barruan Vicent Ginerren kontzertua dago 20:00etan Koruko Andra Mariaren Basilikan. □

MUSIKA GARAIKIDEA CHILLIDA-LEKUN

Abuztuak 18 - Melise Mellinger, biolina

Salvatore Sciarrino, soinu proiektzioa
"Etorkizuneko hondo nostalgiko utopikoa", L. Nono

Abuztuak 19 - Nicolas Hodges, pianoa

"Piano", M. Feldman; "Alkan-Paganini", M. Finnissy; "Klavierstück VI zenb.", K. Stockhausen; "V Sonata", S. Sciarrino

Abuztuak 20 - Sphota, musika asmakizun taldea

Annabel Guérédrat, dantza
"Entre Deux Echos"

Abuztuak 21 - Janáček Laukotea

B. Martinu, L. Janáček-en obrak eta Pablo Sorozabal lehiaketako obra irabazlea, M. Vitous-en "Zeitalfer der fische", estreinatuko da

Abuztuak 22 - Iñaki Fresán, baritonoa

Juan Antonio Álvarez Parejo, pianoa.
M. Ravel, R. Strauss, J. Guridi, P. Aldave eta abarren obrak

Abuztuak 23 - Pablo Sorozabal haize boskotea

J. Jacinto, F. García, J. Echeverría, M. Zalba, J.C. Pérez eta H. Extremiana estreinatuko dira.

■ TIROA



Santa Barbaran aurreko tiraldi batean.

'Ehiza ibilbidea' dute larunbatean Txantxangorriko sozioek

■ Inskripzioa 08:30etatik 09:30etara da, Santa Barbaran ■ Larunbatean erabakiko da erregularitate saria.

TXANTXANGORRI elkar-teak plater tiratzea antolatu du datorren larunbaterako. Ehiza ibilbidea modalitatean neurtuko dira, 30 plateretara. Izen ematea goizeko 08:30etan irekiko da eta 09:30etan itxi. Inskripzioa 7 euro kostako da, plater eta guzti.

Erregularitate saria

Larunbatekoa, Txantxangorrik antolatutako bost tiraldietan azkenekoa da eta bostetan regularrena ibili denak eramango

du erregularitate saria. Orain artean, Roberto Garcia eta Antonio Redondo dihoaz aurrena, 62na plater botata. Hirugarren, Xabier Mujika dihoaz 60rekin; laugarren, Manu Loínaz 57rekin; eta bosgarren, Cristobal Barragan 56rekin.

Sari banaketa eta luntxa Santa Barbaran bertan izango dira, tiro saioa bukatu ondorenean. Irabazleak arkumea eta ardo botilak izango ditu sari eta bigarrenetik bederatzigarrenera, kartutxoak. □

ODOL EMATEA

Odol emaille gutxiago abuztuko estrakzioetan

ASTEARTEAN zen odol emateko eguna Hernanin. Odol emaille elkartetik Kronikari emandako datuen arabera, 55 estrakzio izan dira abuztuan eta inoiz odolik eman gabea, hauetatik bakarra. Or-

ganoak emateko prest dagoenik ez da azaldu abuztuan.

Abuztuko estrakzioetan beti egiten du behera kopuruak eta aurten ere nabaritu da hori. Hurrengo odol ematea, iraileko lehenengo asteartean. □

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko denda batek transportista behar du, goizero 06:30etatik 07:30etara. Interesatuak deitu **943 55 49 66**.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalarri anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
►Gauetz: Ansa
Andoain. Ondarreta
☎ 943 591302